


Berriketan

Debako herri aldizkaria

279. alea - 2022ko abendua



Zuhatza elkarte, mende laurden bat euskaldunen arteko sarea ehuntzen



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Arteondo
Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



LAMARIANO
Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan


Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



50 USTE
BURU - ZURI
Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

BOHÈM
BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE. BOHEM@GMAIL.COM

f i



ARENA BAR



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843

Zumardi
pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

f i

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00 ETATIK AURRERA
PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAH



279. alea - 2022ko abendua

AURKIBIDEA



ALBISTEA | 9

KulturEkin-ek umorezko bakarrizketa batekin agurtuko du urtea



ELKARRIZKETA | 10

Euskara hutsean egindako lehen operari buruz jardun da Unai Lekube



GEHIGARRIA | 12

Zuhatza Euskara Elkartea, 25 urte hamaika bidelagun



ELKARRIZKETA | 19

Amaitu berri den surf denboraldia errepasatu du Bitor Garitaonandiak



ALBISTEA | 20

Herritar talde batek sinadura bilketa hasi du, trenen maiztasuna handitzeko eskatzeko

Berriketan



Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83 / 632 043 322

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-200

Inprimategia: Gertu

ISSN 2171-7656

LAGUNTZAILEAK:



DEBAKO UDALA



Hezkuntza, Hizkuntza Polikoa eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saibilburordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.

Informatika
Tresneria
informatikoa

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Arakistain plaza, 2 behea - DEBA
Tel: 943 19 22 63
www.atarideba.com

ieraenea
eko-enda

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6r 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20 - E-mail: ieraenea@gmail.com

kutxabank

ME ENDAÑETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria 3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00 - F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)
endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com


ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali berriketan@zuhatza.com helbidera.

Magnolia mardularen malkoak

Aurrerapenaren izenean jasandako tratu txarren eta abstrakzio kolektiboaren ondorioz sortutako gaixotasunen baten eraginez, historia handiko jauregi zahar baten atzeko lorategi batean magnolia mardula hiltzen denean, paisaia eraldatu egingo da. Arrotz bihurtuko da, iraganaren lekuko izatetik inor gutxiren oroitzapen lausoa izatera pasatuz.

Baina, zoritxarrez, denbora pasa ahala eta bertatik sarri samar igaro ondoren, tristetu egiten nau pentsatzeak txikitu egingo dela gure herrian desagertutako zuhaitzek eragindako barne-hustasunaren sentsazioa, erabat desagertu arte.

Ez dezagun gure magnoliarekin horrelakorik gerta dadin utzi.

Aldazabal-Murgi etxearen atzeko parkean dagoen magnoliaren egoera oso kezagarria da. Zuhaitzaren egoera hobetzeko, ondoko neurriak hartzea proposatuko nuke:

-Lehenik eta behin, sustraiak gehiago ez zanpatzeko, bere inguruko eremua itxi hesi batekin (gainazaleko sustraiak ditu magnoliak).

-Bere sustraietatik landareak kendu (Lawson altzifreak) eta begiratu sustraiak ustelak dauden edo zer daukaten.



-Ondo konpostatutako lurra zabaldu.

-Lurrak porositatea berreskuratzeko lan bat egin.

-Altuerako inausketak egiten dituen enpresa bat kontratatu, zuhaitzari lehortu zaizkion adarrak garbitzeko eta jarraipena egitea errazteko.

-Zuhaitz babestu izendatu.

Diego Mendoza, Debanatura elkartearen izenean




ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfático -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak * Dietista * Podologia

Lersandi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Maitena Arrizabalaga Deba Kolegiatu zk. 20.000.975
Odontologoa

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24 Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95 




Nº 379

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Sokagin, 2 bajo Apartado 3 20820 DEBA Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

Higiezinaren Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezinaren Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Zatoz Olentzerori eta Mari Domingiri harrera egitera!



Ate-joka ditugu Gabonak, giro berezia sumatu daiteke herrian, ezta? Bada, urtero bezala, ohiko hitzordua iragarzeko ordua iritsi zaigu. Dakizuen beza-

la, abenduaren 24an, eguerdian, Olentzero eta Mari Domingi izango ditugu bisitan herrian, euren astoaren konpainian. Aurten, gainera, ohiko moldera itzuliko da hitzordua, aurreko bi urteotako baldintza bereziak eta murrizketak albo batera lagata.

Azken eskutitzak jaso aurretik, herritarrek agurtu eta kalejiran ibiliko dira protagonistak -12:00etan Plaza Zaharretik abiatu eta Simon Berasaluze plazara mugituko dira-. Indarrak berreskuratze aldera, salda eta ogitarte-

ko postua eta zuen gutunak eskura emateko aukera ere egongo da gero, Foruen Plazan. Hitzordua txukun-txukun irten dadin, herriko elkarte eta norbanako ugari elkarlanean gabilta antolakuntza lanetan eta herritarren parte-hartzea eskertuko genuke.

Gonbidatuta zaudete, beraz, guzti-guztiok Olentzerori eta Mari Domingiri harrera beroa egitera. Animatu, ondo pasako dugu eta! Eguberri on denoi!

Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzeko lantaldea

Urtarrilaren 7an Bilboko kaleak beteko ditugu *Etxera bidea gertu lelopean*



Aurten, Sarek, Bake Bideak eta Bakegileek manifestazio bakarra antolatu dugu urtarrilaren 7rako. Beste behin ere, Bilbo izango da gure helburuak lortzeko falta zaigun bidea aldarrikatzeko gune garrantzitsua.

Urtarrilaren 7an, larunbatean, 17:00etan, Autonomia kalea jendez bete eta, *Etxera bidea gertu* lelopean, manifestazioa hasiko dugu; Autonomiatik Bilboko udaletxera. Bakearen, bizikidetzaren eta konponbidearen aldeko mezua elkarrekin aldarrikatuko dugu.

Kaleak duintasunez, bizikidetzatza lortzeko itxaropenez eta

euskal presoei zein haien familiei eragiten dieten giza esku-bideen errespetuaren exijentziaz beteko ditugu.

Urtarrilaren 7an, eta, aurrerantzean, gure ahalegin guztiak egingo ditugu espetxe-politika arrunta aplikatu dadin, eta, behin betiko, orain arte aplikatu izan den salbuespen egoera buka dadin.

Jakitun gara gure herrian Zoro Feri eguna ospatzen dela urtarrilaren 7an, baina badakigu, era berean, zein garrantzitsuak diren aldarrikapen hauek Euskal Herriaren normalizazioarako bidean. Beraz, Bilbora joateko antolatu dugun autobuserako izena ematera gonbidatzen zaitugu.

Autobusa 15:30ean irtengo da, paseo estaliko geltokitik; Arkatza liburu-dendan eman daiteke izena.

Debako Sare

Uzuri
optika audio



RPS: 183/12

**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Iturkale 2 beheka - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Debarrak munduan

Maite Zalduegi

“Zerbait berria ezagutzeko gogoak” eraman zuen Maite Zalduegi munduan barrena bidaiatzera. Granadan itzulpen-gintza ikasketak burutu ondoren egin zuen bidaietako batean brasildar batzuk ezagutu zituen, eta haien herrialdea ezagutzera abiatu zen; zazpi hilabeteko bidaiak izan behar zuena luzatu, eta bertan errotu da 44 urteko debarra. Egun, Ubatuban bizi da bikotekidea eta hiru seme-alabekin batera. Ez da damu Brasilgo kostaldera joateko erabakia hartu izanaz. Handik erantzun die *Berriketan*-en galderei.

Noiztik bizi zara Debatik kanpo? Non zaude gaur egun?

18 urterekin Granadara Itzulpengintza ikastera joan nintzenetik, ez dut negu osorik herrian pasatu. Ubatuban bizi naiz, bikotekidea eta hiru seme-alabekin; Brasilgo kostaldean dago, Sao Paulo eta Rio de Janeiro arteko mugan. Zergatik? Ba oraingoz gustura gaudelako, lana egiteko aukera daukagulako eta bizi kalitatea ere ona delako. Horrez gain, bizitzaren sentitzen dugun bezala bizitzeko aukera ere badago.

Zerk eraman zintuen atzerrira?

Zerbait berria ezagutzeko gogoak. Australian urtebete igaro ondoren, bertara itzuli edo bertan ezagutu nituen brasildarren lurra ezagutzeko zalantzatan ibili nintzen. Azkenean, ezezagunaren atzetik joan nintzen; zazpi hilabetez Brasilen bidaiatu eta Euskal Herrira “betirako” bueltatzea zen asmoa.

Zertan zabilta orain?

Azken bi urte eta erdi hauek oso garrantzitsuak izan dira niretzat. Ulergaitza egiten zait egoera guztia, eta sortu zaizkidan galderen erantzunen bila nabil. 2020ko maiatza aldera, gainera, idazten hasi nintzen. Lanak liburu forma hartu zuen, eta Debako ikastolako lagun batekin abenduan argitaratzeko asmoz gabiltza. Senarrari ere laguntzen diot lan kontu batzuetan eta gure txikiekin ere denbora asko ematen dut.

Espero zenuen bezalakoa da orain duzun bizilekua? Zerk harritu zintuen?

Egia esan, ez nuen ezer berezirik espero. Nahiko galduta nengibilen eta, Brasilen bertan egonda, ezagutzeko gogoak neukan. Zati txiki bat besterik ez dut ezagutzen; oso herrialde handia da. Kanpora begira jende nahasketarekin eta herri tolerantia bezala agertu arren, nik baino aurreiritzi gehiago



zitu zela eta beraien artean gu baino askoz elitistagoak direla iruditu zitzaizkidan; beharbada, horrek harritu ninduen gehien.

Zure egunerokoan euskarak zein leku du?

Gure txikiei hitz egiten saiatzen naiz, baina ez da nik espero bezala joan. Alaba nagusiak primeran hitz egiten du, izan ere, bera da Debara gehien joan dena ere. Baina, bi txikiek, ulertu arren, ez didate euskaraz erantzuten. Dena den, saiatzen naiz euskaraz hitz egiten eta abesten, eta euskaldunak ere badirela gogorarazten!

Bertako hizkuntzarik ba al dago hor?

Lur hauetan geratu diren indigenek beraien hizkuntzak gorde dituzte, baina beraien artean eta herrixketan bakarrik erabiltzen dituzte. Portugesak bertan bizi zirenen hizkuntzen hitz asko jaso ditu, baina, hala ere, mingarria eta oso tristea da lurralde hauetan bizi ziren herriei egindako guztia.

Zer eramango zenuke horra Debatik? Eta zer ekarriko?

Egia esan, ez nuke ezer aldatuko. Ubatubak ematen didan askatasuna oso gustuko dut, baita herrian ezagunen artean egotearen goxotasuna ere. Batzuetan, beste tokiko gauzen falta izatea aberasgarria da. Jaki mailan, berriz, hortik oliba olio, ogia eta ardo onak ekarriko nituzke Ubatubara eta hemengo banana, papaia, koko eta mango goxoak eramango nituzke Debara.

Debara bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Deba eta inguruak erreferentzia garrantzitsuak dira guretzat, baina ez dakit zer esan. Senarrak eta biok beti nahi izan dugu bi lekuetan egon, baina azken urteotako egoerak gure planak atzeratu ditu.



Laburrean

Paisaia bat: Itziartik Debara autoz jaisten zaudenean itsasoa agertzen denekoa.

Usain bat: udako egun bero baten ondoren, euriak lurra bustitzen duenekoa.

Zapore edo jaki bat: amaren San Blas opila.

Gustuko dut... eguneroko gauza txikiek gozatzea.

Ez dut gustuko... hipokrisia eta besteak tontotzat hartzen dituzten handikiak.

Amets bat: Euskal Herri inguruan txoko polit bat sortzea familia eta lagunentzat.

Urtarrilaren 7ra arte egongo da zabalik Bidezko Merkataritza bultzatzeko denda

Gabonetako elkartasun denda zabaldu dute beste behin ere herrian, Debako Santa Maria Parrokiako Kooperazio Taldearen ekimenez. Bertan, hainbat herrialdetako produktuak jarri dira salgai, hala nola elikagaiak, kosmetikoak, bisuteria edota artisau-produktuak.

Jakinarazi dutenez, salmentei esker aurten irabazitakoa hainbat proiektutara bideratuko da; Maliko Togon dagoen Saint Paul ikastetxeari laguntzeko helburua dute, esate baterako.

Ostolaza eta Portu kaleek bat egiten duten izkinako lokalean jarri dute denda. Urtarrilaren 7ra arte egongo da zabalik, ondoko ordutegian: astegunetan, 17:00etatik 20:00etara, eta, asteburuetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.




Elikagai bankuko boluntarioek elikagaiez betetako hamabi kutxa batu dituzte Deban

Debako Elikagai Bankuko kideek azaroaren 25ean eta 26an egindako elikagai bilketa nagusia "arrakastatsua" izan zela nabarmendu dute. Azaldu dutenez, elikagaiez betetako hamabi kutxa bildu zituzten. "Datu zehatzak ez ditugu urtarrilera edo otsailera arte jasotzen, baina Deban bilketa ondo joan dela esan genezake. Janariz betetako hamabi kutxa bidali genituen lurraldeko bulego nagusira; gure kalkuluen arabera, mila kilo inguru ditu kutxa bakoitzak".

Esker onez agertu dira, eta herritarrek "oso eskuzabalak" izan direla gai-

neratu dute. "Herritarrek oso ondo erantzun ohi dute beti, eta honakoa ere ez da izan salbuespena. Oso harro eta eskertuta gaude". Elikagaiez gain, dirua ere batu zuten. Guztia Bergaran eta Donostian zenbatu arte datu zehatzik ez baldin badute ere, diru dezente jaso zela uste dute.

Batutako elikagaiak eta diru guztia herriko 45 familiari laguntzeko erabiliko dute. "Udalaren laguntzari esker, eta Caritasekin elkarlanean, gainera, hilero banatzen ditugun sortetan haragia, arraina, arrautzak, fruta eta barazki freskoak ematen ditugu".



MAITANE ETXANIZ

Aztarnak

Irulegiko Eskua aurkitu zuen emakumeari malkoak atera zitzaizkion berak kontu handiz ateratako brontzezko xaflan idatzitako mezu bat zegoela jakin zuenean. Emozio hau ulergarria da, izan ere, gu baino lehenago bizi zirenen mezu bat gordetzen du esku horrek.

Guraso eta aitona-amonon bizitzen pasarteak ezagutzen ditugu, haiek kontatu dizkigutelako, eta hauen aurrekoen bizitza historia irakurritz irudikatu dezakegu. Baina idazkera sortu aurretik milaka urtetan nola bizi izan ginen jakiteko modu bakarra daukagu; aztarnak interpretatzea.

Deba bailaran aurkitu den historiaurreko ondare garrantzitsua azaldu berri dute Xabier Peñalver, Jose Antonio Mujika eta Asier Gomez arkeologo eta paleontologoen Kultur Elkartean eskainitako hitzaldian. Arpoiak, suharrizko ijelkiak, ebakigailuak... harrizko eta hezurrezko tresna ugari aurkitu dituzte gure herriko arkeologia aztarnategietan, gure arbasoen bizitzen berri ematen digutenak. Naturak eskaintzen zuena ehizatuz, arrantzatuz eta bilduz bizi ziren, beste taldeekin harremanetan, beti mugimenduan.

Gure bizimodua asko aldatu den arren, oinarrian berdinak izaten jarraitzen dugu. Eta asko gustatzen zait imajinatzea orain gu bizi garen lurretan duela 200.000 eta 10.000 urte bitartean, emakume eta gizonak bizi zirela, guk bezalako pasioak eta beldurrak zituztenak. Haiek hainbat klima aldaketa, izurrite eta goseteri aurre egin zieten bezala, guk ere datorkigunari aurre egingo diogula espero dut.

"Izan zirelako gara, eta garelako izango dira".



NEREA ARRIZABALAGA

Dena berde

Duela hilabete inguru albiste bat irakurri nuen: Burgosen, baldintza meteorologiko kaskarrak zirela eta, haize-errota bat erori eta hautsi zen. Ez zioten larritasun handiegirik ematen gertakizunari; jarri zuten lehen dorreetako bat omen zen eta, 15 urtetik gora izanda, bere “balio-bizitza” amaitzeaz zegoen.

Nola? Esaten ari zen haize-errota bat eraikitzeak suposatzen duena, horiek natur inguruetan kokatzeak dakarren txikizioa (150 urtean ere ez dena konpontzen) eta, 15-20 urte pasata, tonaka hondakin sortzen dituen zerbait “berdea” dela?

EAEn aurreikusita dauden parke eolikoekin gogoratzen, eta gaiarekin nahiko berotuta, informazio gehiagoren bila hasi nintzen, eta are berotuago bukatu. Haize-erroten hegalak erabiltzen ari diren bitartean, haizearen higaduraren ondorioz materiala galtzen doaz eta naturguneetan zabaltuta gertatzen da, eta erabilgarritasuna galtzen dutenean arazoa are handiagoa da. Ezin dira birziklatu. Zer egin zehazten duen legedirik ere ez da garatu, astirik ez 15-20 urtean? Eta gaur egun ez da ezagutzen zein den erretiratzeko den hegal baten trazabilitatea. Gainera, duten kokapen eta tamainarengatik, haien garraioak eta birrintzeak 4000-5000€-ko kostua izan dezake, “asumitzen zaila den kostua” (jartzeko onargarria, kentzeko ez).

2025erako, Estatuan 4.500 hegal egongo dira erretiratzeko, hotzikara sartu zait. Garai batekoek trikuharri eta cromlech-ak utzi zizkiguten, guk zer utziko dugu?

Energiarekin arazo bat daukagu, baina uste dut hemen ez dagoela irtenbidea.

Alaitz Izaga Kulunka Dantza “Hasierako ilusio berarekin jarraitzen dugu”

Hamar urte bete dira Kulunka Dantza bidea egiten hasi zenetik eta, urteurren berezi hori aitzakia hartuta, Alaitz Izaga taldeko zuzendari eta irakaslearekin elkartu da *Berriketan*. Hainbat gai izan ditu hizpide Izagak.



Azkar esaten bada ere, hamargarren urteurrena bete duzue. Nolako da Kulunkak izan duen bilakaera?

Hasierako dantza eskola eta gaur egungoa oso ezberdinak dira: ikasle kopurua asko handitu da eta ikasle mota ere aldatu da; egia esan, helduen presentzia asko handitu da. Batez ere, irakasteko eta dantzatzeko era aldatu da, eta gure emanaldiak ere askoz antzagoak dira orain. Dantza ikuspuntu irekiago batetik irakatsi eta dantzatzen dugu, betiere dantza klasikoaren diziplina ahaztu gabe; ikasleak askotariko dantza estiloetarako prestatzen ditugu eta dantza era zabalago batean maitatzen irakasten saiatzen gara.

Urteurrenari keinu egiteko emanaldi berezi bat ere prestatu zenuten.

Taldearen hamar urteak ospatzeko erarik politena eskolako dantzari guztiak kalera dantzan ateratzea zela iruditu zitzaigun. Argi genuen ekintza kalean izan behar zela eta herritar guztiei zabaldu nahi genielako, eta, horregatik, kalean egin genuen dantza. Formatua ezberdina eta berezia izan da.

Zer zentzutan?

Ospakizun emanaldia bi egunetan

egin dugu. Abenduaren 16an, 19:00etan hasita, dantzajira bat egin genuen. Herriko puntu ezberdinak dantza agertoki bihurtu genituen eta bitarteko kaleak ere girotu genituen. Ibilbidea Foruen Plazan hasi eta bukatu genuen, eta Plaza Zaharrea eta Arakistain Plazan ere egin genituen geldialdiak. Abenduaren 17rako, berriz, amaiera polit bat prestatu genuen: 12:30ean hasita, dantzajiraz gain, *flashmob* bat ere egin genuen, eskolako dantzari guztiok batera. Urteurrenari amaiera emateko dantza alai eta jendetsua izan zen.

Zertan inspiratutako sorkuntzak kaleratu dituzue?

105 dantzari batu ginen, eta estilo aldetik oso ezberdinak diren 25 koreografia gorpuztu genituen. Koreografia hauen aukeraketa bihotzez egin genuen. Azken hamar urteotan eskolatik igarotako irakasleek sortutako koreografiak izan ziren; beraiantzat prestatutako opari moduko bat izan zen.

Etorkizunera begira, zer nolako ilusioarekin eta proiektuekin jarraitzeko asmoa daukazue?

Hasierako ilusio berarekin jarraitzen dugu, eta aurrera begira ere gurearekin jarraituko dugu; herrian dantza bultzatuz, dantzarekiko zaletasuna eta maitasuna ahalik eta gehien zabalduz eta, batez ere, dantzatzuz! Deban dantza zaletasun handia dago. Eskola adinean dauden haurren artean praktika nagusi bihurtu dugu dantza eta helduen artean ere dantza eskoletara etortzeko zaletasuna gero eta handiagoa da. Zentzu honetan ere, Kulunka aldatzen eta zabaltzen ari da. Baina badago arduratzen gaituen gai bat ere: mutilen presentzia oso baxua da. Muga sozialak dituen arazo bat dela ikusten dugu, eta hau aldatzen saiatuko gara.

Umorezko bakarrizketa batekin agurtuko du urtea KulturEkin programazioak



Alazne Etxeberria aktore donostiarak *Mujer vasca soltera busca...* umorezko saioa dakar Debara abenduaren 28an. Hitzordua 20:00etan izango da, Kultur Elkartearen, eta 16 urtetik gorako herritarrei zuzenduta egongo da. Gaztelaniaz jardungo du Etxeberriak, ordubete inguruko iraupena izango duen emanaldian; sarrera librekoa izango da eta ez da beharrezkoa izango lekua aurrez erreserbatzea (edukiera mugatua). Umorezko saio horretan, emakume euskaldun ezkongabe batek maitalea, laguna edo txateatzeko norbait bilatzeko bizi dituen komerriak izango ditu hizpide donostiarrak. Horretarako, teknologia eta estrategia mota guztiak erabiltzen ditu, baina oraindik ez omen du aurkitu bikote egonkorra aurkitzeko formula sekretua.

Mujer vasca soltera busca... ikuskizunarekin emango dio amaiera KulturEkin egitasmoak aurtengo egitarauari.




Otsailaren abiatu zen 2022ko programazioa, Olatz Salvador musikari donostiarraren kontzertuarekin, eta harrezkero beste sei ekimen egin dira hilabeteotan; Esti eta Mikel Markezen emanaldia martxoan, Liburuaren Egunaren harira antolatutako ekitaldiak apirilean, Pelax eta Bidelapurak taldeen kontzertua maiatzean, Ibil Bediren zuzenekoak ekainean, Xahu taldearen kontzertua uztailan eta Maialen Akizu, Uxue Alberdi, Aitor Bizkarra eta Andoni Egañaren bertso saioa azaroan.

Jarraipena 2023an

Nolanahi ere, bidea egiten jarraituko du Debako Udalak eta Kultur Elkarteak elkarlanean antolatutako egitasmoak 2023an ere, antolatzaileek egunotan iragarri baitituzte datozen hilabeteetara begira aurreikusitako lehenbiziko bi kultur jarduerak.

Batetik, urtarrilaren 27an, Mikel Urdangarin musikaria ariko da Kultur Elkartearen, 22:00etan. Emanaldirako sarre-
rak abenduaren 28an jarriko dira salgai, 18:00etatik 20:00etara, hamar euroan. Zornotzan 1971n jaioa, Gasteizen bizi da euskal kantautorea. Oraintsu bete ditu 25 urte musikagintzan, eta bere ibilbideari erreparoa ematen dion disko berezia kaleratu berri du, aurten, justu, mendea betetzen duen Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin: *Badena eta ez dena*.

Bestetik, otsailaren 24an, Miren Narbaiza (MICE) musikari eibartarraren abestiak eta Itziar Garaluce artista bisualaren irudiak uztartzen dituen *Meteo* ikuskizuna izango da Kultur Elkartearen, 22:00etan. Oraindik ere zehazteke dago sarrera salmenta nola egingo den, baina antolatzaileek datozen egunotan argituko dute guztia. Emanaldirako sarre-
rak 5 euroan jarriko dituzte salgai.


TaxiAlain Deba
 LIZ.-ZK.: 3 

636 135 008
www.taxideba.eus alain@taxideba.eus


Seven Clovers
 Irish pub
943 191 295

ITURLAN, S.L.
 Iturgintza-Berogailuak

 Mogel kalea, 1 - Behea
 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tfno. Mugikorra: 635 717 732
 Tfnoa - Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Bar LOREA
 "Orotariko tartak etxean eginak"
 Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

Unai Lekube Donostia Operako kidea

“Opera ikuskizun batek baliabide, profesional eta boluntario askoren beharra izaten du”

Musikarekiko zaletasun handia dauka Unai Lekubek. 18 urterekin Debako Aitzurin hasi zen abesten eta, beste hainbat talde eta proiektu musikaletan parte hartu ondoren, Donostia Operako kide ere bada 2018az geroztik. Gaur egun, 1884an sortutako *Pudente* opera berreskuratzeke lanetan dabil Lekube parte den erakunde musikala. Historian euskara hutsean egin eta estreinatuz zen lehenengo opera berreskuratzeke kudeaketa ekonomikoaren ardura dauka debarrak, eta horren eta beste hainbat xehetasunen berri eman die *Berriketan* aldizkariko kazetariari.



Serafin Barojak eta Jose Antonio Santestebanek XIX. mende amaieran sortutako *Pudente* opera berreskuratzeke lanetan murgilduta zabiltzate Donostia Operako kideok. Nola heldu zenioten tamaina honetako proiektu musikal bat berreskuratzeke erronkari?

Udazkeneko, operarekiko zaletasuna zabaltzeko asmoarekin, *Divina Opera* deituriko formatu txikiko opera zatien ikuskizunak antolatzen ditugu Donostian. Orain dela urte eta erdi edo, Jagoba Fadrique gure zuzendari artistikoak Baroja eta Santestebanaren obra honi buruzko komentario bat topatu zuen ezustean Interneten, kontzertu hauetarako erreperitorio bila zebilela. Gehiago jakin nahian, *Pudente* 1884ko Donostiako inauterietarako sortutako obra bat zela deskubritu zuen eta, gure taldearen zentzua opera zaletasuna Donostian, Gipuzkoan eta Euskal Herrian sustatu eta zabaltzea izanik, gure hurrengo proiektu nagusia izan behar zela argi ikusi genuen.

Horrelako proiektu bati heltzen diozuen lehen aldia da?

Ez, urteetako esperientzia kontrastatua daukagu. 2017an sortu zen Donostia Opera, Gipuzkoan eta, oro har, Euskal Herri osoan opera ezagutarazi eta sustatzeko helburuarekin, eta, ordutik, Donostian bertan ekoiztutako 11 operatan eta Orion egindako musikal batean parte hartu du.

Zeintzuk dira opera honen ezaugarri nagusiak?

Pudente-ren ezaugarri nagusia da historian euskara hutsean egin eta estreinatutako lehenengo opera izan zela. Aurretik baziren euskal opera bezala izendatutako beste kasu batzuk, Xabier Munibe Peñafloidako Kondearena, esaterako.

Baina haiek euskaldunek erdaraz sortutako operak ziren, edo elebidunak. *Pudente* desberdina da, bakarra. XIX. mendean donostiar bikote batek inauterietarako, herriarentzako, sortutako eta goitik behera euskaraz egindako lehena izan zen, euskaldunek egindako lehen euskal opera, alegia.

Zenbat ekitaldi ditu?

Nahiz eta Barojaren libretoak hiru ekitaldi eduki, bi ekitaldiarekin estreinatu zuten; dirudienez, Santestebani guztia osorik bukatzeko denborarik ez zion eman. Hamar urte beranduago berriro taularatu zuten, osatuta eta hiru ekitaldiekin, hain zuzen.

Nolako ia izan da 100 urte baino gehiago desagertuta egon den lan bat berreskuratzea?

Ez da lan erraza, baina buru-belarri eta ilusioz ari gara lanean. Antza, Santestebanaren oinordekoek ez zuten obra original osoa gorde; oraindik, Santestebanek berak zer edo zer beranduago piano eta kanturako publikatutako bertsio bat lortu dugu. Fadriquek berak, gainera, Espainiako Liburutegi Nazionaleko funtsak kontsultatu ditu, baita Eresbil (Musikaren Euskal Artxiboa) eta Donostiako Kontserbatoriokoak ere. Donostiako Union Artesanako artxiboetan ere bila ibili gara, izan ere, horiek eta dagoeneko desagertuta dagoen La Fraternal elkartearen izan ziren *Pudente*-ren estreinaldiaren babesle nagusiak.

Obra berpizteko ahalegina handia izaten ari da, ezta?

Zorionez, Barojaren libretoa osorik aurkitu da eta, bertan, obraren eszena bakoitzari zein melodia herrikoi eta testu dagoen azaltzen da. Santestebanek, gainera, pianorako akonpainia

**“Proiektua,
gaur egun,
partituraren
berreskuratze eta
obraren orkestrazio
fasean dago”**

mentuzko musika herrikoi asko eman zuen argitara. Gure hurrengo urratsa material hau guztia Barojaren oharrekin "konektatzea" izango da.

Nolakoa izan da partiturak eta libretoa berreskuratuz, zaharberritu eta transkribatzeko prozesua? Nora edo norengana jo behar izan duzue?

Obra berreskuratuz eta berrasmatzeko, Fran Dominguez konpositore gaztearen laguntza daukagu. Behin partitura zati guztiak ulertzeko lortuta, horiek gaur egungo orkestraziora moldatzea izaten ari da bere lana.

Berreskuratze lanetan zenbat lagun ari zarete lanean?

Protagonista nagusiak Jagoba Fadrique gure zuzendari artistikoa, Fran Dominguez konpositorea eta Jon Bagües Eresbilgo zuzendaria izandakoa dira; egia esan, azken honen laguntza ere ezinbestekoa da *Pudente*-ri buruzko edozein pasarte eta partitura lortzeko garaian. Berreskuratze lana oraindik ez da amaitu eta, hortaz, beraien laguntza guztiz ezinbestekoa izaten ari da.

Prozesua zer fasetan dago orain momentuan?

Partituraren berreskuratze eta obraren orkestrazio fasean dago; errazena eta zailena falta dela esan genezake. Partitura eta gidoirik gabe, ez daukagu ezer egiterik, baina eszenografia, aktore, musikari, orkestra, jantzi edota antzokirik gabe ere ez. Orain arteko esfortzu nagusia obra berreskuratzea eta birmoldatzea izan da, eta, noski, hau guztia finantzatu ahal izatea ere bai. Lehenengo mugarri hau lortu dugula esan genezake.

Musika eta antzerkia bateratzen dituen ikuskizun hau gauzatzeko, baina, diru asko beharko duzue. Zer aurrekontu daukazue esku artean?

Opera ikuskizun batek baliabide, profesional eta boluntario askoren beharra izaten du. 130 pertsonarentzako lana aurreikusten dugu, eszenatokian bertan eta kanpoan. Horrelako ikuskizun batek, obra bera berreskuratuz eta orkestratzeaz gain, personal gastu handiak dauzka; diru asko behar da aktore, musikari, orkestra, eszenografia, eszena langile, jantzi profesional, makillatzaile, argiztapen, soinu eta abarren behar guztiak finantzatzeko. Kasurik onenean, 120.000 euroko aurrekontua darabilgu esku artean, baina ziur nago gehiago ere izan daitekeela.

Diru kopuru hori lortzeko, gainera, crowdfunding kanpaina bat ere abiarazi duzue. Nola joan da?

Zorionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Goteo Fundazioaren plataformaren bitartez bultzatutako PiztuMeta! izeneko deialdirako hautatuak izan ginen. *Pudente* egia bihurtzeko beharrezko aurrekontua 120.000 eurotik gorakoa bada ere, bide hori lehenengo faseari heltzeko aukera bezala baliatu dugu, baita gure proiektuari gipuzkoar jendartearen zabalkunde emateko ere. Lehen faseari aurre egiteko gutxieneko aurrekontua 7.639 eurokoa zen, eta, azkenean, 11.263 euro batzea lortu dugu. Hau guztia oso garrantzitsua izan da guretzat. Alde batetik, obraren berreskuratze eta orkestrazio lanak ordaintzeko ahalmena eman digulako, eta, bestetik, kopuru hau guztia aldundiak berak jarritako eta askotariko herritarrek egindako laguntza txiki askorekin lortu delako.

Zein izango da hurrengo urratsa?

Erakunde publiko zein pribatuen laguntza eta konpromisoa lortzea izango da hurrengo urratsa; hori izango da gure erronka nagusia, eta ilusioz ari gara lanean. Ez dezagun ahaztu XIX. mendean euskara hutsean egindako lehenengo opera berreskuratuko dugula, eta hori galdu ezin dugun aukera bat dela. Baina dena ez da dirua eta finantzaketa. Donostia Operaren ardatzetako bat gure lurraldeko musikari gazteei eta promesa berriei aukera eta oihartzuna ematea ere badela kontuan izanda, proiektua aurrera eramateko orkestra eta talde desberdinekin kontaktuan ere bagaude. Egia esan, jende asko inplikatzeko asmoarekin gabiltza lanean.

Lana estreinatzeko datarik aurreikusita daukazue?

Obraren berreskuratze lanetan bete-betean ari gara orain momentuan, eta horrelako proiektu batek eskatzen duen jendea eta aurrekontua kontuan izanda, ez daukagu data zehatzik ezarrita. Nolanahi ere, Donostia Operak 2023ko udazkenean estreinatuko duela ziur nago. *Pudente* Donostian jaio zen eta, ia mende eta erdi geroago, Victoria Eugeniara, Donostiako antzoki nagusienera, bueltatuko da.

***Pudente*-ren aurrerapen txiki bat entzuteko aukera ere egon da duela gutxi Donostiako San Vicente elizan egindako kontzertu batean. Zer nolako harrera izan zuen jendaurrean egindako aurkezpenak?**

Azaroaren 26an egin zen *Divina Opera* deituriko formatu txikiko opera zatien ikuskizuna. Operarekiko zaletasuna eta euskal opera ondarea sustatzeko idiosinkrasia ardatz izanik, euskal opera eta zarzuelen zati txikiekin osatutako programa entzuteko aukera egon zen Donostia Operaren eskutik; besteak beste, Arrietaren *Marina*, Colinen *Maitena*, Guridiren *Caserio*, *Mirentxu* eta *Amaya*, Sorozabalen *Katiuska* eta Usandizagaren *La Llama* eta *Mendi Mendiyan* entzuteko aukera egon zen. Aurtengo programaren barruan, gainera, *Pudente*-ren obertura ere entzuteko aukera egon zen, Amaia Zipitria pianojole andoaindarraren eskutik, eta euskal doinu herrikoiak opera baten barruan erraz identifikatu zitezkeela konturatu ziren bertaratu ziren ikusleak. Emanaldiak, egia esan, prentsaurreko eta bestelako ahaleginez gain, herriari proiektua zuzenean aurkezteko parada eman zigun, eta horrekin guztiarekin jendea animatzea ere lortu genuela uste dugu.



Donostia Operako kideak.

Zuhatza Euskara Elkarte, 25 urte hamaika bidelagun

1997ko abenduan sortu zuten elkarte, Deba herri euskaldunagoa egiteko helburuz. Geroztik, euskaldunen eta euskaltzaleen arteko sarea ehunduz joan da Zuhatza, eta, gaur egun, 500dik gora bazkideren babesa du proiektuak. Hasieran jarritako oinarriei eutsita, askotarikoak dira mende laurdeneko ibilbide honetan garatu dituen jarduerak eta, egungo moldeetara egokituta, ibili dabilen meta izaten darrai Zuhatzak. Amaigabea da 25 urteotan elkartearen buel-tan lanean aritu diren edo, egun ere, horretan jarraitzen duten kideen zerrenda. Nolanahi ere, urtemugaren aitzakia-ekin, hastapenetatik gaur egun arte bidelagun izandako hainbat herritarren hitzak jaso ditu *Berriketan*-ek.



Elkarteko hasierako lantaldea (1997).



Zuhatzako kideak (2001).



Euskararen aldeko argazki herrikoa (2009).



Gogoeta prozesua (2016).



Bazkideen urteko batzarra (2017).

“Euskara elkarteak osatzearen ideiarekin hasi eta berehala batu ziren hainbat herritar proiektura”

Amaia Zinkunegi Talde sortzaileko kidea

Atzera begira jarri dugu Amaia Zinkunegi Zipitria, elkartearen hastapenak ezagutu nahian. Zuhatzaren sorreran parte hartu zuen eta ondo ezagutzen ditu orain 25 urte ezarritako oinarriak eta helburuak, baita elkarteak egindako bidea ere. Iraganaz eta orainaz galdezka joan zaio *Berriketan*.



Noiz eta nola sortu zen Zuhatzak Euskara Elkarteak? Nor hasi zen mugimendua sortzen herrian? Zer asmorekin?

Elkarteak eratzeko batzar ofiziala 1997ko abenduan egin zen, Kultur Elkartearen. Aurkezpen ofiziala, nolabait esateko. Ordurako bagenbiltzan talde bat lanean, jarritako helburuei begira, elkarteak izan zitzakeen lantaldeak definitzen, egitura posibleak aztertzen...

Egia esan, nire burua ez da batere ona, baina esango nuke neu hasi nintzela inguruko jendearekin euskara elkartearen ideia konpartitzen. 89-90ean hasi nintzen udaletxean euskara teknikari lanetan; ordurako martxan zen Udaletako Euskara Teknikarien Sarea: bakoitza zertan zebilen eta nola ari zen partekatze eta hausnarketak egiteko, sinergiak batzeko, eraginkorragoak izateko, foro bat zen.

Partekatze horietan argi eta garbi ateratzen zen ideia nagusietako bat hauxe zen: euskara normalizatu nahi bada, baliabide gehiago dituzten erakunde publikoak ez ezik herri mugimendua ere (herritarren indar eraldatzailea) behar-beharrezkoa dugu; are gehiago, herri mugimendurik gabe, herritarren akuilu eta inplikaziorik gabe, erakunde publikoetatik datorrena kamuts geratuko da.

Inguruetako beste euskara talde batzuen sorrerarekin batera jaio al zen Debako elkarteak bera ere?

Ordurako baziren eredu edo erreferente garrantzitsu batzuk: Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak, adibidez, 1983tik ari zen lanean (kooperatiben mundutik sortu zen, hain zuzen, Mondragon Kooperatibak herrigintzarekin izan duen loturaren erakusgarri).

AEDren ereduak 1990 inguru hartan zabaldu zela esango nuke. Garai hartan sortu ziren Galtzaundi Tolosan, Jardun Bergaran, Elgoibarko Izarra Elgoibarren (1963tik zetorren kultur elkarteak eraldatuz), Karkara Orion, Ttakun Lasarten, ...eta kitto! Eibarren, eta abar.

Haien atzetik iritsi ginen gu. Euskara elkartearen ideia zabaltzen hasi ginenean, beraz, helburua zen herritar talde sendo bat eratzten joatea euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin bat egingo zuena eta eginkizun horretan gutxi-asko inplikaturik zena.

“500 bazkide horiek euskararen erabileran aktiboki eragile izan daitezten lan egitea izan daiteke erronka handi bezain eder bat”

Nola gogoratzen dituzue elkartearen hastapenak?

Esango nuke ilusioz abiatu ginela. Euskara elkarteak osatzearen ideiarekin hasi eta berehala batu ziren hainbat herritar proiektura. Uste dut zaindu genuela, baita ere, pentsaera politiko desberdinetako jendea egon zedin bertan. Inportantea iruditu zitzaigun hori garai hartan.

Gogoratzen dut nola biltzen ginen Kultur Elkarteko lur azpiko gelan (hango itxi usaina eta argia) eta nola eztabaidatzen genituen gaiak: zeri eman lehentasuna (kultura, herriko taldeen

martxa, aldizkaria,...), gai administratiiboak (estatutuak bai ala ez, adibidez), diru iturriak nondik lortu eta kontuak nork eraman...

Hasieran ezarritako oinarri edota helburuei eutsi al die Zuhatzak urteotan? Zer deritoxu elkarteak izan duen bilakaerari? Nola ikusten duzu gaur egun?

Bai, noski. Euskalgintzan jarraitzen du Zuhatzak. Aldizkariarekin egin du aurrerapen handiena, nik uste. Orain, gainera, digitalera jauzi eginda, pentsatzekoa da errazago irakurriko dutela hainbat eta hainbatek.

Bailara mailako proiektua ere martxan da eta hori beste jauzi kualitatibo bat izango da, hain eskura dauzkagun erdal egunkarien aurrean, beste alternatiba bat eskainiko digulako herritarroiei. Baina ez dugu ahaztu behar azken urteetan udaleku irekiak ere kudeatu izan dituela Zuhatzak herriko haurrei euskaraz bizitzeko tarreak eskainiz. Kulturgintzan ere ari da, literatur lehiaketak antolatuz edo, azken urteetan, Euskaraz Bagera zikloa antolatze herriko kultur taldeak koordinatuz, esaterako.

Bestalde, bazkide kopuruak ere nabarmen egin du gora azken urteotan, zuzendaritzak egindako lanari esker. 500 bazkideetik gora. Bada zerbait. 500 pertsonak zilegitasun eta sendotasun handia ematen diote elkarteari hainbat premia, ekonomikoak ez ezik baita hizkuntzen erabileraren gaineko erabakiak ere, mahai gainean jartzerakoan. 500 pertsona horiek euskararen erabileran aktiboki eragile izan daitezten lan egitea izan daiteke Zuhatzarentzako erronka handi bezain eder bat.



“Elkarteko zuzendaritza eta lantaldea indartzea izango da aurrera begirako erronka nagusia”

Itziar Arana Zuhatza elkarteko lehendakaria

Gaur egun, euskara elkarteko aurpegi ezagunenetariko bat da Itziar Arana Aizpuruarena herrian, azken urteotan Zuhatzako lehendakari lanetan dabil eta. Mende laurdena aitzakia hartuta, azkenaldian egindako ibilbideaz, egungo egoeraz eta etorkizuneko erronkez hitz egin du ondoko solasaldian.

Mende laurdena, ez da gutxi euskara elkarte batentzat, ezta?

Ez, noski! 100 urtean bizitzeko esperantza izanez gero, ez. Baina sinetsi nahi dut Zuhatzaren beharrik ez dela izango hemendik 50 urtera.

Noiztik diharduzu elkarteko lehendakari lanetan?

Egia esan, ez naiz gogoratzen urte kopuruaz, konturatu orduko pasatu zaizkit eta! Baina gogoan dut Zuhatzak hausnarketa edo gogoeta prozesua abiatu zuela 2016an eta prozesu haren harira sortutako zuzendaritza berrian hartu nuela lehendakari lanetan aritzeko ardura, beti elkarlanean gauzatu den ardura.

Zein izan da azken urteotako ibilbidea?

Azken urteetan, betidanik egin izan ditugun jardueri eutsi nahi izan diegu: Mintzalaguna egitasmoa, gazteei zuzendutako literatur lehiaketa, Euskal Jaiko bazkari herrikoia, Kolore Anitz taldearekin aisialdia, Olentzero eta Mari Domingi... Era berean, euskararen bueltan herriko talde, elkarte eta pertsonekin saretzea ere beti izan dugu helburu, bide horretan Euskeraz Bagera programazio bateratua elkarlanean antolatuz edo udan ere kultur eragileekin ekimen ezberdinetan parte hartuz, adibidez. Bestalde, Zuhatzan ikusgarritasun, lan karga eta aldaketa handienak eragin dizkigun *Berriketan* hilabetekaria argitaratzeaz gain, sareetara jauzia egin eta web orria martxan jarri izana ere azpimarratuko nuke azken urteotako ibilbideari dagokionean. Lan horiekin guztiarekin batera, *Berriketan*-en bitartez Zuhatza DKT eskualdeko komunikazio proiektuko parte ere bada gaur egun.

Hainbat jarduera eta proiektu aipatu dituzu, baina zailtasunik ere izan du elkarteak urte hauetan guztietan, ezta?

Euskara elkartearen eta hedabidearen lanak aurrera eramatea izan da zailtasun nagusia, erakundeek eskatu edo ezarritako baldintzei egokitu ezinda ibili baikara. Dirulaguntzak jaso-

tzeko, adibidez, *Berriketan*-ek webgunea izatera “behartu” gintuzten, nolabait esatearren, eta horrek guztiak kale edo bale erabakitzera behartu gintuen; aurre egitera ausartu eta pandemiak hondoratu gintuen.

Galera ekonomiko garrantzitsuak bizi izan ditu elkarteak azken boladan.

Hartutako erabakiek eta pandemiak ekonomikoki ataka estuan ipini gintuzten, bai. Hala ere, eskertzekoa da zabaldu genuen larrialdi mezuari herriak emandako babesa, behar genituen bazkideak lortu baikenituen elkarte ekonomikoki sostengatu ahal izateko.

Zein da elkartearen gaur egungo egoera? Bazkide kopurua handitu nahian ibili zarete, esate baterako.

Gaur egun, bazkide kopuruari dagokionean, pozik gaude, 500en bueltan gabiltzalako. Dena dela, elkarteko zuzendaritzan bazkide berri gehiagok parte hartzea da hurrengo erronketako bat, garai modernoek aire garbia behar dute eta.

Hori izango da aurrera begirako lan ildo edo erronka nagusia?

Aurrera begira dugun erronka nagusia elkarteko zuzendaritza eta lantaldea indartzea izango da. Hedabideen arloan egindako aurrerapausoek (webgunean, paperezko hilabetekarian eta DKT proiektuan) ez baitute etenik: formatu eta diseinu aldaketa, orrialde kopurua eta edizio sistema aldatzea, Tokikom plataforma bateratua ezartzea, atari digitalean *Komunitatea* atala sortu eta martxan jartzea, kudeaketa aurreratuaren prozesuarekin jarraitzea... aurreikusten dugu. Betiere euskalgintza, kulturegintza eta aisialdiaren esparruetan ere lanean jarraituz. Hau guztia gauzatzeko herriaren eta erakundearen babesa eta egonkortasuna behar ditugu, lantaldeko

langileen baldintzak duindu ahal izateko.

Eskertuko nieke 25 urte hauetan bidelagun izan ditugunei erronka berri hauetan ere gurekin jarraitzea.

“Hartutako erabakiek eta pandemiak ekonomikoki ataka estuan ipini gintuzten; eskertzekoa da herriak emandako babesa”

“Eskertuko nieke 25 urte hauetan bidelagun izan ditugunei erronka berri hauetan ere gurekin jarraitzea”

Zer da (edo izan da) zuretzat Zuhatza?



Iñaki Elosua

Zuhatza Euskara Elkarteak ekintza asko burutu izan ditu bere ibilbide luzean, orain 25 urte sortu zenetik.

Bere aldizkaria zabaldu izan du hilero (irailean izan ezik); 1.400 ale hila-bete bakoitzean. Eta beste hainbat ekintza ere aipatu nahi nituzke:

-Garai berriko Euskal Jai "berrizatuaren" sortzaile, era-tzaile eta bultzatzaile zintzoa izan da hogeitik gora jaialditan.

-Hainbat musika jaialdi antolatu ditu elkarteak, Fermin Muguruza eta abar ekarriz Debara.

-Bertsolarien jaiak ere ospatu izan ditu, ekitaldietan txapel-duna bertan zela, edota Xabier Amuriza bere ahotsean Lazkao Txiki irudikatzen jarri zueneko hura bezala.

-Zumardian haurrentzako ekitaldi arrakastatsu ugari egin izan ditu hainbat eta hainbat urtean.

-Arkeologiaz ere arduratu izan da Zuhatza, Praileaitz-en aurkikuntzaren berri emateko Xabier Peñalver eta Jose Antonio Mujikaren hitzaldia antolatuz, adibidez, Kultur Elkartearen.

-Eta bestelako hainbat bideo proiektzio eta hitzaldi ere eskaini izan ditu Kultur Elkartearen.

-Elkarteak orain ere Benito Lertxundiren emanaldi arrakastatsua antolatu berri du. Eta abar eta abar egiten jarraitzen du.

Josune Urbietza

Euskararen biziberritzea amets dugunon komunitate debara da Zuhatza niretzat. Deba herri euskaldunagoa egiteko helburuarekin sortu zen eta horretan jardun du fin-fin 25 urte hauetan, erabilera eta euskal kultura bultzatuz.

Euskaldunok asko dugu oraindik egiteko, baina egin beharrekoa taldean eta gogoz egiten dugunean arinagoa eta ilusio-nagarriagoa izaten da lan hori. Zuhatza elkarteak gogo hori hauspotzen duela iruditzen zait eta zeregin hori benetan esker-tzen diot.

Herriarentzat urtean zehar antolatzen dituen ekintzen

bidez eta *Berriketan* herri aldizkariarekin adin tarte guztietara euskara iristeko ahalegina egiten du. Horien fruitua epe laburrean ez da ikusten, baina epe ertain edo luzean uzta jasoko duen esperantzarekin egiten ditu eta hala izango delakoan nago.

Zuhatza bezalako elkarteak behar ez izatea izango litzateke euskararen normalizazioa lortu izanaren seinalerik onena baina, bitartean, Zuhatza zoriontzea eta egin duen lana aitortzea besterik ez dagokit.



Ina Oiartzabal

"(...) Nire euskaltasuna pekatu bat da eta ez du mea-kulparik".

Sortzetik, eta orain dela urte gutxi arte, Zuhatzako partaide aktiboa izan naiz. Ibilbide gorabeheratsu horretan, Zuhatzaren presentzia herrian nabarmen-tzen joan da, beste elkarte gehienekin saretze garrantzitsu bat lortu du eta euskararen erreferentziazko elkarte izatera iritsi dela esango nuke.

Une honetan eta etorkizunera begira, hizkuntza gutxituen biziraupenaren ziurgabetasuna ikusirik (Iparraldean, adibidez, hamarkada gutxitan gertatzen ari dena ikustea besterik ez

dugu), Zuhatza elkarte erresistentziako lubaki indartsu bat bezala ikusten dut. Euskaldunok ez dugu komunikabide erral-doirik (mundu digitalean euskararen presentzia oso urria da), ez dugu gure hizkuntza babestuko lukeen tribunalik, ezta gure euskalduntasunaren alde egingo duen kirol selektzio ofizial ospetsurik ere. Gu txikiak gara, ahulak eta oso zaurgarriak.

Gizarte baten giza kalitatea gauza txiki eta ahulen defentsan egiten dugun ahaleginen arabera neurtuko bagenu, euskal gizarte energia sozial handikoa dela esango nuke. Euskararen defentsa egitea gizarte hobe baten alde egitea ere bada. Beraz, debarrok zorionekoak gara, behin eta berriz, gure euskalduntasunaren txinparta pizten duen halako elkarte bat izateagatik.



Zuhatzakideak 18. Korrikan (2013).



Mintzalagunak Nordic Walking saioan (2014).

Zer da (edo izan da) zuretzat Zuhatza?



Koldo Aperribai

Korrika badator!

Euskal Jaia plazan, bakoitzak bere janaria ekarri!

Berriketan-en idatziko dugu Gazte Asanbladako zerbait!

Horrelaxe ezagutu nuen nik Zuhatza, herriko berriak zabaldu eta euskararen aldeko ekimenak antolatzeko gune zabal eta anitz bat osatzen zuen elkarte. 2009tik 2018ra Zuhatzan lan egiteko aukera eduki nuen, koordinatzaile lanetan. Ina, Iñaki, Lukax, Joseba, elkar-teko bazkide, euskararen boluntario eta Zuhatzako lantalde

osoari... eskerrik asko, bihotzez, bizitako guztiarengatik! Ekimenak antolatzen gustura aritu izan naiz herrian euskara bultzatzen! Familia eta baserriko eginbeharrak kontu, Zuhatzako koordinatzaile lana laga nuen.

Euskara eta euskal kulturaren alde lanean egunerokotasu-nean, ekimenak antolatzen eta albisteak sortu eta zabaltzen jarraitzea ez da lan makala!

Zuhatzak bide horretatik jarraitzea nahiko nuke. 25 urte bete ditu eta bere bidean jarraitzen du euskalgintzan eragiten eta gure hizkuntza eta kultura herrian bultzatzen. Etorkizunean ere Zuhatza herritarrak biltzeko gune zabala izate-a nahiko nuke, elkarlana eta ilusioa ardatz hartuta!

Emili Sukia

Zuhatza hitz bakar batekin definitu beharko banu, oparia esango nuke; herritik eta herriarentzat sortua, hain maitatua den gure hizkuntzari herrian bere tokia eta bultzada ematen diolako, *Berriketan*-ek gurean gertatzen diren berri ematen digulako eta, nire kasuan, amets eta erronkak betetzen lagundu didalako. Eta bertako langileak? Galtza gorriak. Opariak egiten laguntzen duten horietakoak; haiei esker jasotzen dugu opari zoragarri hau. Ikusten ez den lan handia dago atzean, askotan eskertzen ez dena. Horregatik, eskerrak eman nahi nituzke. Isilpean eta ezkutuan, baina beti lanean galtza gorriak.

Laster 10 urte dira Zuhatzako kide naizela. Herrian euskarazko aisialdi talde baten beharra ikusita, hainbat gazte elkartu

eta Zuhatzara jo genuen. Guretzat berria zen erronka hartan, baietza eman eta laguntza ikaragarria eskaini ziguten. Hala sortu genuen, lan handia eginez, Kolore Anitz taldea. Eskertzekoa da guran jarritako konfiantza. Zalantzarik gabe esan dezaket lagun handiak egiteko aukera eman didala. Batzuetan distiratsu izan den arren, zimeltze puntuan egona da gure lore morea; eta, hala ere, hura ureztatzen laguntzeko prest egon da beti elkarte eta hara ordaina, 9 urte elkarlanean eta lorea inoiz baino biziago.

Zorionak 25 urte hauengatik eta mila-mila esker, bihotzez. Jarrai ezazue opariak egiten, ez baita lan ederragorik.



Olentzero eta Mari Domingiren etorrera (2016).




Kolorez Blai udalekuak (2018).



Euskal Jaia iragartzeko kartel lehiaketa (2019).



Errigorako produktuen dastaketa (2021).



“Eskerrik asko guztioi. Denok batera, Euskeraz Bagera!”

Azaroaren 18an abiatu eta abenduaren 10ean amaitu zen Euskeraz Bagera egitaraua. Zuhatza Euskara Elkarte, Debako Udala, Euskaraldia eta beste hainbat eragileren ekimenez antolatutako zikloak lau asteburu hartu ditu aurten. Hartara, Euskaraldiarekin ez ezik, Euskararen Nazioarteko Egunarekin eta Zuhatza sortu zeneko 25. urtemugaren ospakizunarekin ere bat egin du zikloak.

Euskara ardatz hartuta, askotariko jarduerak izan dira aukeran, hala nola

yoga ikastaroa, antzerki emanaldia, Mintzodromoa, literatur lehiaketako sari banaketa ekitaldia, haurrentzako jolasak, dantza herrikoia, bideo proiektzioak eta musika kontzertuak.

Antolatzaileak pozarren daude egitasmoak izan duen harrerarekin. Adin eta izaera ezberdineko jende ugari parte hartu du emanaldietan, modu batean zein bestean, zuzenean ala zeharka, eta haiekiko guztiekiko esker onez agertu dira. “Eskerrak eman nahi dizkiegu

denei. Halako egitarau zabala prestatzeko lan handia dakar atzetik eta guztien ahaleginari esker lortu dugu Euskeraz Bagera gauzatzea. Hamarnaka lagunek jardun dute antolakuntzan eta bestelako lan batzuetan boluntario gisa laguntzen, beste hainbat herritarrek zuzenean parte hartu dute egitarauan (musikariek edo dantzariak, adibidez), eta publikoak ere ondo erantzun du. Protagonistei, laguntzaileei, babesleei, ikus-entzuleei... guztiguztietan eman nahi dizkiegu eskerrak”.

Literatur lehiaketako sariak banatu dituzte

Mendata institutuak eta Zuhatzak antolatutako lehiaketari dagozkion sariak Euskararen Nazioarteko Egunaren bezperan banatu ziren ikastetxean. DBHko ziklo bakoitzean, bi sari nagusi banatu dira; liburu elektronikoa bat jaso dute opari lehen saria irabazi dutenek eta Arkatzen erabiltzeko 60 euroko opari txartela bigarren saria lortu dutenek. Halaber, hainbat lanek aipamen berezia izan dute eta haien egileek ere jaso dituzte opariak.

Epaila lanetan Maddi Astigarraga, Amets Carrillo, Igor Larrañaga eta Alazne Txurruka aritu dira. Haien erabakiz, lehen zikloan (DBHko 1. eta 2. maila) Sara Arrizabalaga gailendu da *Jarraitu arnasten* izenburuko lanarekin, Ainhoa Gaillardek jaso du bigarren saria *Letrak* lanarekin eta, azkenik, aipamen berezia Ani Sarasketak eskuratu du *Pistinetan galdurik* lanari esker. Bigarren zikloan (DBHko 3. eta 4. maila), berriz, Mattin Agirrezabalaga nagusitu da *Askatasunaren preso* izenburuko lanarekin, Saioa Egañak jaso du bigarren saria *Errealitate berri bat* idazlanarekin eta Oihan Aizpitarrek eraman du aipamen berezia *Zergatik ni ez?* idazlanari esker.

Kimetz Etxabe txirrindularia

“Fitxa berritzeak 23 urtez azpiko mailan eta maite dudan kirolaz gozaten jarraitzeko aukera ematen dit”

19 urte ditu Kimetz Etxabe txirrindulari debarrak. Txirrindularitzan murgilduta ikusi du familia txiki-txikitatik, batez ere bere aitona Jabi; “Debako txirrindularitza klubean oso murgilduta zegoen. Lasterketetan laguntzen aritzen zen eta etxean ere lasterketa guztiak ikusten zituen”. Beste asko bezala futboleko hasi bazen ere, Etxabek txirrindularitzara jauzi egitea erabaki zuen duela urte batzuk. Zumaiako Viveros San Anton taldearekin hasi zen, eta, gaur egun, Cafes Baque taldean dihardu, bigarren urtez jarraian.



Cafes Baquena diharduzu iaztik. Zerk erakarri zintuen gehien taldearen eskaintza jaso zenuenean?

Betidanik gustatu izan zait beraien lan egiteko modua. Nire entrenatzailea zena, gainera, taldeko zuzendari sartu zen, eta hori ere taldera batzeko beste puntu positibo bat izan zen. Egia esan, aukeraketa egitea ez zen zaila izan.

Alderik nabaritu al duzu aurreko taldeen eta oraingoaren artean?

Gazte mailako Viveros San Anton-Mardu taldean aritu nintzen aurretik eta ez du zerikusirik 23 urtez azpiko talde batekin. Egiturari dagokionez, baliabide gehiago behar dira. Maila honetan ez dugu soilik Euskal Herriko lasterketetan parte hartzen, Espainia eta Europa mailakoetan ere aritzen gara eta, arrazoi horregatik, material, pertsonal eta antolakuntza gehiago behar da.

Oro har, zein da taldearekin egin duzun lehen denboraldiaren balorazioa?

Denboraldi ona egin dudala esango nuke. Negua zaila izan zen; ebakuntza bat egin behar izan zidaten eta ondoren pneumoniak jota egon nintzen. Gaixorik egon nintzen tartean ezin izan nuen berezko oinarritzko lan on bat egin, baina, hala ere, oso gogor hasi nuen denboraldia. Horrek guztiak, ordea, gutxira-ko balio izan zidan.

Zergatik?

Lizarran jokatu zen hirugarren edo laugarren lasterketan eroriko handi bat egon zen, eta bete-betean harrapatu ninduen. Hasiera batean, ukondoan hogeit puntuko zauria bakarrik nuelakoan geunden, baina handik egun batzuetara belauneko minez hasi nintzen, eta hor guztia aldrebestu zen. Mina hartutako kolpearen ondorioa izango zelakoan igaro genituen lehen asteak, baina, azkenean, hezurretako edema bat nuen belaunburuan. Ordurako hilabete neraman geldirik eta, zer nuen asmatu ordurako, fisioterapiarekin tratatzen hasi ginen; horri esker, pare bat hilabetetan bizikleta gainean minik gabe jartzeko gai izan nintzen. Denboraldi bukaerara gerturatzean gauza politak egin ditudala esango nuke eta, azkenean, uste baino hobeto ibili naiz.

Zureganako konfiantza erakutsi eta beste urtebeterako luzatu dizute fitxa.

Harreman ona izan dugu eta, bien aldetik adostasuna zegoenez, bertan jarraitzeko erabakia hartu dugu. Oso gustura nago eta fitxa berritzeak, gainera, 23 urtez azpiko mailan eta maite dudan kirolaz gozaten jarraitzeko aukera ematen dit. Ea hurrengo denboraldian lan polita egin, eta niganako erakutsi duten konfiantza eskertzeko aukerarik daukadan. Ez nuke eskertu gabe utzi nahi

babesleen eta taldeetako eta lasterketeko laguntzaileen laguntza ere; zuengatik ez balitz, hau ezinezkoa litzateke eta.

Finkatu al duzue egutegia?

Taldearekin bileraren bat eduki dugu, eta denboraldiaurreari eta datorren urteari begira hitz egiteko aukera izan dugu. Euskal egutegia oraindik ez dago guztiz itxita, baina gutxi gorabeherako bat badugu eta, kanpoko lasterketa batzuk ere egiten ditugunez, denboraldi hasiera zer nolako izango den finkatzen hasita gaude. Hori bai, ez dago ezer guztiz zehaztuta; izan ere, beti izaten dira azken ordurako aldaketak, nola gauden ikusita eta erorikoak eta antzekoak ere kontuan hartuta.

Ba al duzu lasterketarik begiz jota?

Momentuz ez dut lasterketarik begiz jota, baina, aukera emanez gero, Espainiatik kanpoko lasterketetan parte hartzeko gogo handia daukat. Espainiatik kanpo txirrindularitza bizitzeko beste modu bat dute eta, hemengoarekin alderatuta, gainera, askoz ere modu profesionalagoan aritzen dira; ikasten jarraitzeko era ona iruditzen zait. Hemengo lasterketen egutegia ere oso ona da. Euskal Herriko lasterketetan parte hartzerako Espainia osotik etortzen da jendea; beraz, hemen aritzeko ere beti egoten da motibazio bereziren bat.

Bitor Garitaonandia surflari profesionala

“Munduko Txapelketarako sailkatu izana garaipen handi bat da niretzat, unea dastatu eta gozatu nahi dut”

Ume-umetatik duen pasioa lanbide bihurtu du Bitor Garitaonandia 20 urteko surflari debarrak. Denboraldia nola edo hala hasi bazuen ere, gogor saiatu eta bi titulu garrantzitsu irabazi ditu. Junior mailako Europako txapelkun izendatu ostean, urtarrilean Kalifornian jokatu den Munduko Txapelketan onenen artean izango da.

Denboraldi bikaina burutu duzu. Espainiako txapelkun izendatu zaituzte maila absolutuan eta Europako txapelkun ere bai, junior mailan. Maila pertsonalean eta profesionalan, zer garrantzi daukate bi garaipen horiek?

Surflari bezala, nire ibilbideko emaitzarik garrantzitsuenak izan dira; nire buruari eta nire ingurukoei zer egiteko gai naizen erakutsi ahal izan diet. Pertsona bezala, nire lan egiteko eta nire izateko moduan konfiantza handia eman didate. Azkenean, horrelako garaipenak lan eta esfortzu handiaren ostean lortzen dira. Hain zuzen ere, esango nuke nire identitatea markatzen duten bi hitzak horiek direla: lana eta esfortzua.

Nola gogoratzen dituzu podiumaren gorenean bizitako une horiek?

Egia esan, podiumeko uneekin baino gehiago, bertara iristeko egin beharreko ibilbide guztiaz oroitzen naiz. Hartutako erabaki eta urrats guztiek hain helmuga politera ekarri nautela pentsatzea ederra iruditzen zait.

Espero al zenuen halako emaitza ikusgarriak lortzea?

Amets bat izaten ari da bide hau guztia. Urte hasieran norbaitek amaiera horrelakoa izango zela esan izan balit, ez nioke sinetsi ere egingo. Urtea ez nuen ondo hasi, zentzu guztietan. Maiatzean, ordea, hainbat erabaki eta aldaketa egin ondoren, guztiz aldatu ziren gauzak. Ordutik hona, guztia amets zoragarri bat izaten ari da, errealitate zoragarri bat.

Europako txapelkun izendatu ondoren, gainera, junior mailako Munduko Txapelketan parte hartzeko txartela ere eskuratu duzu zuzenean. Zer asmorekin zoaz urtarrilean Kaliforniara? Urduri zaude?

Europako txapelkun izatea lortu badut, zergatik ez ote naiz munduko txapelkun izango? Ez diot presiorik ezarri nahi nire buruari, baina badakit zer egiteko gai naizen; hori lortzeko prestatuko naiz eta borrokatuko dut. Egia esan, oso lasai sentitzen naiz. Munduko Txapelketarako sailkatu izana garaipen handi bat da niretzat, unea gozatu eta dastatu nahi dut. Hemendik aurrera datorren guztia opari bat da niretzat.

Txapelketara begira, modu berezian prestatzen edo entrenatzen ari al zara?

Errutina ez dut gehiegi aldatu. Gehienbat, nire zorientasuna lantzen dut, eta zenbat eta zorientsuago izan eta sentitu, orduan eta hobeto burutuko dut nire lana. Hortaz, orain arte jarraitu dudana metodoa erabiltzen segi nahi dut. Zerbaitek on egiten badit, zergatik aldatu?



Nolako aurkariak izango dituzu Munduko Txapelketan?

Kontinente bakoitzeko bi surflari onenak eta beste hamar gonbidatu izango dira txapelketan. Maila oso altua egongo da eta erronka polita izango da nire burua bertan ikustea. Ni naiz nire areririk gogorrena eta, nire buruari aurre egitea lortzen badut, munduko txapelkun sentituko naiz, titulua lortu ala ez.

Junior mailan lehiatu zaren azken urtea ere izan da.

Datorren denboraldian Open mailan soilik lehiatuko naiz. Surfeari, beste hainbat kiroletan bezala, Junior eta Open mailan aldi berean lehiatzeko aukera dago. Jada hiru urte daromatza maila horretan, eta badakit zein den exijentzia maila. Nire burua sendo ikusten dut, eta denbora kontua izango da Open mailan ere gailurrera igotzea.

Denboraldi berria ere laster hasiko da. Zein da zure hurrengo erronka, edo zer amets bete nahiko zenuke?

Gaztea naiz eta, hortaz, amets asko ditut oraindik betetzeko. Nire ametsak nire altxorak dira, eta horiek elkarriketa batean aipatu ordez, nahiago nuke egia bilakatzea. Beraz, helburuak lortzen joan ahala, nire ametsak edo helburuak zeintzuk diren jakingo dizue.

Sinadura bilketa hasi du herritar talde batek, trenen maiztasuna handitzeko eskatzeko

Zumaia eta Eibar arteko lineen maiztasuna handitzeko eskatu du Euskotrenen zerbitzua hobetzeko helburuarekin antolatzen hasi den erabiltzaile talde batek. Zehazki, bi herri horien artean igarotzen diren trenen maiztasuna astegunetan ordu erdiro berraztertuta izatea eskatu dute sinadura bilketaren bultzatzaileek, Eibar-Bilbo eta Zumaia-Donostia artean gertatzen den modura. Zerbitzuaren hobekuntza, gutxienez, puntako orduetan ezartzea eskatu dute. Hau da, 07:00etatik 09:00etara, 13:00etatik 16:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Ohartarazi dutenez, egun, ordubetean behin tren bakarra igarotzen da linea horren bi noranzkoetan. "Donostia-Bilbo ibilbide osoan, Mendaro, Deba eta Arroa bakarrik geratzen dira ordu erdiroko zerbitzu gabe. Eibar eta Matiko artean trena ordu erdiro dago (eta Elgoibartik hasita, egunaren zati handi batean), baita Zumaia eta Donostia artean ere".

Trenen maiztasuna handituz gero, zerbitzua askoz ere jende gehiagok erabiliko lukeela uste dute. "Izugarrria da tren ez dabilen jende kopurua, are gehiago orain, txartelaren prezioa jaitsi denetik eta erregaien prezioa hainbeste garestitu denetik". Maiztasuna handitzeak, gainera, garraio publikoaren erabilerrari ere sekulako bultzada emango liokeela uste dute. "Lan eta eskola ordutegiak askotan



ez datoz bat trenaren ordutegiarekin, eta ordubete zain egon beharrak autoa hartzera bultzatzen du jendea".

Bailarako herrietan ere bai

Arrazoi horiek guztiak kontuan hartuta, sinadurak biltzeko kanpaina hasi zuten azaroaren 21ean. Herriko honako saltokietan utzi dituzte inprimakiak: Arkatza eta Masillo liburu-dendetan, Albizu harategian, Galtxa okindegian eta Sukia eta Astillero kaleko fruta-dendetan. Sinadurak batzeko mahaiak ere ipini dituzten kalean, eta herriko bizilagunen erantzuna "ona" izan dela azpimarratu dute. "Kanpainak izan duen oihartzunarekin pozik gaude. Jendeak oso ondo erantzun eta sinatu du, eta ekimena hastea ere eskertu digute".

Eskakizuna ez dute soilik Debako

bizilagunentzako egin, bailarako bizilagun guztientzako baizik. "Ez dugu uste arazoa gurea bakarrik denik, bailarako herritar askorena ere badela uste dugu". Hori horrela, kanpaina inguruko herrietara zabaldu, eta aurrerago herri horietako udal ordezkariarekin batzeko asmoa agertu dute, "haien babesarekin eskaera Euskotreni luzatu ahal izateko".

Inguruko herrietan honako lekuetan sinatu daiteke eskakizuna: Arroa Behean (Ainhara ileapaindegia, Txara denda eta Txomin eta Sakulupe tabernetan), Mendaron (Morroskilon), Mutriku (Beristain liburu-denda, Ametza taberna, Ansorregi Oinetakoak eta Aparan), Elgoibarren (Garate, Ikus optika, Muruamendiaraz, Pitxintxu eta Ecenarron). "Zumaian ere laster zabal-kundea ematen hasteko asmoa dugu".

Mikel
ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK

Hondartza 10 behea,
20820 Deba
T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

A D

ASESORIA DEBA
Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Behoko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

f www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak

DIRULAGUNTZAK

“Dirulaguntzak aurrezten den energia kopuruaren arabera emango dira”

Birgaitze bulegoak etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko eta etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzeko laguntzak bideratuko ditu.

Nolako dirulaguntzak dira?

Europar Batasunak emandako NEXT Generation dirulaguntzak dira eta, kasu honetan, etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzea helburu duten jarduketak edo obrak finantzatzeko eta etxebizitzeraikinak birgaitzeko jarduketak eta proiektuak finantzatzeko balio izango dute. Zentzu horretan, Debegesatik, Debabarreneko Birgaitzeko Hirigintza Elkarteak garenaz eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena dugunez, laguntza hauen inguruko informazioa eman eta laguntzak bideratuko ditugu.

Nolako baldintzak dituzte dirulaguntza hauek?

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira eta energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak egiteko erabili behar dira beti. Gainera, obrei esker zenbat aurrezten den justifikatu behar da Energia Eraginkortasunaren Ziurtagiriaren bitartez. Izan ere, dirulaguntzak aurrezten den energia kontsumo kopuruaren arabera emango dira.

Zer dira, zehazki, energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak?

Adibidez, eraikinaren ingurutzailan egiten diren hobekuntzak. Hau da, fatxadetan eta estalkietan egiten diren lanak. Kasu horretan, obrak ez dira fatxada margotzera soilik mugatzen, lehen egiten zen bezala. Isolamendu-lanak egiten dira, eraikinari beroki moduko bat ipiniz eta, horrela, eraginkorragoa da energetikoki, energia gutxiago galtzen duelako. Etxebizitzari dagokienez, bestetik, leihoen aldaketa izan daiteke jarduketa bat, adibidez.



Dagoeneko badago dirulaguntza hauek eskatzeko aukera.

Zenbateko dirulaguntzak jaso ditzakete eskakizuna egiten dutenek?

Dirulaguntzaren zenbatekoa gehieneko ehunekoaren eta gehieneko zenbatekoaren arteko txikitetasunaren arabera kalkulatu da. Gainera, egoera ekonomiko ahulean dauden pertsonen laguntza osagarriak jaso ahal izango dituzte.

Noiz eta nola eskatu ahal izango dira dirulaguntza hauek?

Dagoeneko eskatu daitezke. Etxebizitza-komunitate batek edo partikular batek informazioa behar badu, Debegesara deitu dezake (943 82 01 10) eta Igorrengatik galdetu zita hartzeko. Gainera, debegesa.eus webgunearen bitartez zita hartzeko aukera eskainiko dugu laster. Horrez gain, etxebizitza-komunitateentzat eta herritarrentzat fitxa batzuk sortu ditugu dirulaguntzen inguruko informazio zehatz eta argiarekin. Hauek ere Debegesako webgunean eskegita aurkitu ahalko dira laster.

ABENDUAK 23, OSTIRALA

-16:00. Askaria, buruhandiak, euskal dantzak eta Gaztainerre jana Itziarko frontoian.
-Arratsaldean Deba Brass taldea, kalez kale.

ABENDUAK 24, LARUNBATA

-08:30. Mendi ibilaldia: Itziar-Mendaro-Mutriku. Itziarko plazatik abiatuta.
-10:30. Gabon eskea Itziarren.
-12:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Plaza Zaharretik abiatuta.
-Eguerdian. Musika Eskola eta Dantza Eskolakoak kantari ibiliko dira kalean.
-13:00. Aitzuri Abesbatzaren kalejira.
-16:30. Elkartasun Olentzero. Foruen Plazan amaituko da ekimena 19:30ean.
-18:30. Olentzero eta Mari Domingi, Itziarren.

ABENDUAK 25, IGANDEA

-11:00. Aitzuri Abesbatzak Eguberri Eguneko meza nagusian abestuko du.

ABENDUAK 28, ASTEAZKENA

-11:00-14:00 eta 16:00-18:00. Haurrentzako puzgarriak, Itziarko frontoian.
-18:00. Julen magoa, Itziarko frontoian.
-20:00. Umorezko bakarriketa: *Mujer vasca soltera busca...* Kultur Elkartean.

ABENDUAK 29, OSTEGUNA

-22:00. Kontzertua: MICE, Itziarko Burugorri aretoan.

ABENDUAK 29-30

-11:30-14:00 eta 16:30-19:30. Gabonetako haur parkea, Aldats pilotalekuan.

ABENDUAK 31, LARUNBATA

-11:15. San Silbestre lasterketa, plazatik.
-13:30. Musika Bandaren gabon kontzertua, Plaza Zaharrean.
-19:30. Euskal preso politikoen aldeko brindisa, Foruen Plazan.

URTARRILAK 2, ASTELEHENA

-15:30. LHko ikasleentzako Bizkaia Park Abentura-ra irteera, Kolore Anitzen eskutik. 20:30ean bueltatuko da autobusa Debara.

URTARRILAK 5, OSTEGUNA

-18:30. Errege kabalgata.

URTARRILAK 7, LARUNBATA

-Zoro feria (goizeko azokaz gain, egun osoko egitaraua izango da).

URTARRILAK 8, IGANDEA

-18:30. Landarbaso abesbatzaren emanaldia, Itziarko elizan.
-19:00. Helduentzako film emanaldia, Debadezineren eskutik, Kultur Elkartean.

URTARRILAK 9, ASTELEHENA

-12:00. Pentsiodunen mobilizazioa, Foruen Plazan.

Olentzero eta Mari Domingi

Aurten ohiko moldera itzuliko dira Olentzero eta Mari Domingirekin urtero abenduaren 24an egin ohi izan diren kalejirak. Deban, 12:00etan, Plaza Zaharrean elkartu eta Simon Berasaluze plazara joango dira. Itziarren, berriz, 10:30ean Gabon eskea egingo dute eta 18:30erako iragarri dute kalejira.

Margo eta marrazki erakusketa

Abenduaren 23tik urtarrilaren 4ra bitartean, Haitz-Haundi elkarteak antolatutako 27. Gabonetako margo eta marrazki erakusketa izango da ikusgai udaletzeko osoko bilkuren aretoan. Ondoko ordutegian egongo da zabalik: lanegunetan, 18:00etatik 20:00etara, eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Barruan Giro! kultur programa Itziarren

Beste behin ere, *Barruan giro!* lelopean, neguko kultur programa oparoa prestatu du Itziarko Auzo Udalak, beste hainbat eragileekin elkarlanean. Askotariko jarduerak izango dira aukeran, abenduan abiatu eta martxora arte luzatuko den egitarauan. Programazio osoa labur.eus/barruangiro estekan dago ikusgai.

...eta Debabarrenean zer? Eskualdeko hainbat plan interesgarri

ABENDUAK 28, ASTEAZKENA > Elgoibar


-Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Alaia Martin, Jone Uria eta Aitor Bizkarra, 20:00etan, Herriko Antzokian.

ABENDUAK 30, OSTIRALA > Mutriku

-Kontzertua: Abendurock jardunaldiaren baitan, Iluma eta Pleura taldeen zuzenekoak, 22:30ean, Gaztetxean.

ABENDUAK 31, LARUNBATA > Eibar

-Eibarko 27. Kirol Sariak banatuko ditu ...eta kitto! Euskara Elkarteak, 12:00etan, Coliseon.



ZAINTZAKO BOTIKA
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Burgoa Zuazo: abenduak 26, 27, 28, 29, urtarrilak 13, 14, 15, 23, 24, 25, 26.
Zalduegi: abenduak 30, 31 / urtarrilak 1, 9, 10, 11, 12.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI | 669 262 201
BURGOA ZUAZO | 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

BURGOA ZUAZO: abenduak 24 / urtarrilak 14 eta 21
ZALDUEGI: abenduak 31 / urtarrilak 7



Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna,
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.

**1985etik herritarren zerbitzura.
Gure beharrik izanez gero,
hementxe gaituzue.**



DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
Ifar kalea, 12 - 20820 DEBA | 943 19 22 36
udaleuskaltegia.deba@debabe.eus

*Eguberri zoriontsu
eta Urte Berri on!*



**AHOLKULARITZA
LIDERRA,
TOKIKO
ARIMAREKIN**

**ASESORÍA LIDER
CON ALMA LOCAL**

Torrealday adituak, Gipuzkoan ere bai

Torrealdayk 35 urte baino gehiagoko esperientzia du, eta hainbat herritan banatuta dagoen bulego-sare zabala. Enpresa handiei, enpresa txiki eta ertainei, eta autonomoei zerga-, lan- eta kontabilitate-aholkularitzako zerbitzu integrala eskaintzen diegu, kualifikazio handiko eta etengabeko prestakuntzan dagoen profesional-talde baten eskutik. **Ondarroatik, Ermuatik eta Irungotik** gure bulegoetatik kalitate handiko zerbitzua eskaintzen dugu, hurbiltasuna eta konfiantza osoa eskainiz. Gainera, bezeroei beren jarduerari eragiten dieten berrikuntza guztien berri ematen diegu, baita gure azpiegiturari eta gaitasunari esker jaso ditzaketen laguntzen eta diru-laguntzei buruzko informazioa ere. Jar zaitez gurekin harremanetan, eta inolako konpromisorik gabe informatuko zaitugu.



TicketBAI
GIPUZKOAN | EN GIPUZKOA

Torrealday
aditua

www.torrealday.es

YURRITA PRODUKTUEN ZUZENEKO ETA ONLINE SALMENTA

Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea,
eta bestelako gourmet produktuak.



Gabonetarako opari kaxak eta eskaintza bereziak!



Zuzeneko salmentaren ohiko ordutegia:

Astelehenetik-ostiralera → 10:00-14:00.

Larunbatak → 10:00-13:00.

Zuzeneko salmentaren gabonetako ordutegia:

Astelehenetik-ostiralera → 10:00-18:00.

Abenduaren 24a eta 31a → 10:00-13:00.



Online salmenta:

www.yurritagastronomika.com

CONSERVAS
YURRITA
1867
GASTRONOMIKA

CASA
MAULEON
ETXEA
Desde 1867 tik